



ARRASATEKO KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA

NORMATIVA DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS DE ARRASATE

Onarpena: Udalbatzak 2015/12/15ean

Argitalpena: GAOn, 2016/05/26an ([pdf](#))

Aprobación: Pleno de 15/12/2015

Publicación: BOG de 26/05/2016 ([pdf](#))

TESTU KONSOLIDATUA:

TEXTO CONSOLIDADO:

Honako testu kongsolidatu honek Araudiaren testua jasotzen du, ondorengo aldaketak barne, eta horren helburua da irakurtzeko eta ulergarria izateko erraztasunak ematea. Hala ere, jakinarazten da balio legala duen testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa dela (era berean, aldaketa ofizialak ere aipatu aldizkari ofizialean argitaratutakoak dira).

El presente Texto Consolidado presenta, en un único redactado, la Normativa con sus posteriores modificaciones para facilitar su lectura y comprensión. No obstante, se advierte que el único texto con valor legal es el publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (asimismo, las modificaciones oficiales son las publicadas en el citado Boletín Oficial).

ZIOEN ADIERAZPENA.....	2	EXPOSICIÓN DE MOTIVOS.....	2
ATARIKO TITULUA: ARAUDIAREN XEDEA	3	TÍTULO PRELIMINAR: OBJETO DEL REGLAMENTO.....	3
I. TITULUA. ERABILTZAILEAK	4	TÍTULO I. DE LAS PERSONAS USUARIAS.....	4
II. TITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK. 10		TÍTULO II. NORMAS GENERALES DE USO DE LAS INSTALACIONES 10	
III. TITULUA. ABONUAK ORDAINTZEA, INSTALAZIOAK		TÍTULO III. DEL PAGO DE LOS BONOS, RESERVA DE INSTALACIONES	
ERRESERBATZEA ETA IKASTAROETAN IZENA EMATEA	14	DEPORTIVAS E INSCRIPCIONES EN ACTIVIDADES DEPORTIVAS....	14
IV. TITULUA. INSTALAZIOAK ERABILTZeko ARAU OROKORRAK ...	19	TÍTULO IV. SOBRE NORMAS GENERALES DE UTILIZACION DE LAS	
V. TITULUA. INSTALAZIOAK ERABILTZeko ARAUAK	23	INSTALACIONES.....	19
1. KAPITULUA: MUSAKOLAKO INSTALAZIOAK.....	23	TÍTULO V. NORMAS DE UTILIZACION DE LAS INSTALACIONES	23
2. KAPITULUA: MUSAKOLA KANPOKO INSTALAZIOAK ETA		CAPÍTULO 1º: INSTALACIONES DE MUSAKOLA	23
UARKAPEKO ETA ITURRIPEKOAK	31	CAPÍTULO 2º: INSTALACIONES EXTERIORES DE MUSAKOLA E	
VI. TITULUA. ZEHATZeko ARAUBIDEA.....	32	INSTALACIONES DE UARCAPE E ITURRIPE.....	31
VII. TITULUA. LANGILE TEKNIKOAK.....	34	TÍTULO VI. RÉGIMEN SANCIONADOR	32
AZKEN XEDAPENAK	35	TÍTULO VII. DEL PERSONAL TÉCNICO.....	34
I. ERANSKINA: UARKAPEKO BOULDERRA ERABILTZeko ARAUAK 36		DISPOSICIONES FINALES.....	35
I. kapitulua.- Arau orokorrak.	36	ANEXO I: NORMATIVA DE UTILIZACIÓN DEL BOULDER DE	
II. kapitulua.- Boulder Sarrera.....	38	UARCAPE.....	36
III. kapitulua.- Segurtasuna eta materiala.....	40	Capítulo I.- Normas generales.	36
IV. kapitulua.- Portaera.....	41	Capítulo II.- Acceso al Boulder.	38
V. kapitulua.- Zehapen Araubidea	42	Capítulo III.- Seguridad y material.	40
II. ERANSKINA: UDAL-KIROLETARAKO OSASUN-DEKALOGOIA..	46	Capítulo IV.- Comportamiento.....	41
		Capítulo V.- Régimen Sancionador.	42
		ANEXO II: DECÁLOGO DE SALUD EN EL DEPORTE MUNICIPAL. 46	



ARRASATEKO KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA

ZIOEN ADIERAZPENA

Orain arte, Arrasateko Udal Kirol instalazioen araudia 1988ko AUKEAren estatutuetan, 1997ko Zerbitzuen Araudian eta geroztik egin diren Musakola, Iturripe eta Uarkapeko arau orokorretan, nahiz araudi solteetan oinarrituta da.

Udal Plenoak, 2014ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onartzea AUKEA – Arrasateko Udalaren Kirol Erakunde Autonomoa - izeneko tokiko erakunde autonomoa desagitea, 2014ko abenduaren 31tik aurrera. Erabakian gainera jasotzen da Arrasateko Udalak beregain hartuko duela kirol zerbitzuaren kudeaketa, 2015eko urtarrilaren 1ean, zuzeneko kudeaketaren modalitatean, Kirolen zinegotzigoari atxikirik.

Bestalde, baina parte-hartzea bultzatzeko, kirolarekin lotura duten hainbat eragileren ordezkariak ahalbidetuko duen Arrasateko Kirol Aholkularitza Kontseilua eratu du Udalak.

Gertaera hauek guztiak kontuan hartuta eta araudi guztia eguneratu nahiz bateratzeko, ondorengo araudia prestatu da.

NORMATIVA DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS DE ARRASATE

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Hasta la fecha, el reglamento de las instalaciones municipales deportivas de Arrasate se ha fundamentado tanto en los estatutos de 1988 de AUKEA, en el Reglamento de Servicios de 1997 y en las normas generales que posteriormente se han elaborado para los polideportivos de Musakola, Iturripe y Uarkape, como en reglamentos sueltos.

El 3 de junio de 2014, el Pleno Municipal decidió aprobar inicialmente deshacer el organismo autónomo local AUKEA – Arrasateko Udalaren Kirol Erakunde Autonomoa- a partir del 31 de diciembre de 2014. La decisión incluye que el Ayuntamiento se hará cargo de la gestión del servicio el 1 de enero de 2015, en la modalidad de gestión directa, adscrita al concejal de Deportes.

Por otra parte, con el objeto de promover la participación ciudadana, se ha constituido el Consejo Asesor de Deportes de Arrasate, que posibilitará la representación de diversos agentes deportivos.

Aprovechando dichos eventos y con el objeto de renovar y unificar toda la normativa, se ha elaborado el siguiente reglamento.



ATARIKO TITULUA: ARAUDIAREN TÍTULO PRELIMINAR: OBJETO DEL XEDEA REGLAMENTO

Araudi honen xedea Arrasateko Udaleko kirol-instalazioen erabilera arautzea da. Instalazio horietarako sarbidea edozein pertsonak izango du, betiere, araudi honi atxikita erabiltzen baditu, eta dagokion tasa edo prezio publikoak ordaintzen baditu.

Era berean, kirol-instalazioen erabilera eta diziplina araudia ere arautu nahi du.

Arrasateko Udalak beretzat gordetzen du araudi hau argitzeko, interpretatzeko edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea, eta beroriek eta araudi espezifikokoak (ordutegiak, tasak, etab.) jendearen eskura egongo dira.

Araudi honek arautzen dituen instalazioen erabilerari eta kirol-instalazioetan ematen diren zerbitzuei aplikagarri zaizkien tasak edota prezio publikoak Udaltzako onartuko ditu urtero, dagokion zerga-ordenantza aldarazita.

Arrasateko Udalak kirol-instalazio hauek ditu bere eskumenen menpe:

1. Musakola Kiroldegia.
2. Iturripe Kiroldegia.
3. Uarkape Frontoia.

Araudi hau, orobat, etorkizunean egin edo eralda daitezkeen kirol-instalazioetan

El objeto de este Reglamento es regular el uso de las instalaciones deportivas municipales de Arrasate, al que cualquier persona podrá acceder siempre que las utilice de acuerdo con la presente normativa y previo abono de las tasas o precios públicos correspondientes.

Así mismo tiene por objeto regular el régimen de uso y disciplina de las instalaciones deportivas.

El Ayuntamiento de Arrasate se reserva el derecho a dictar disposiciones o resoluciones para aclarar, interpretar o desarrollar el presente Reglamento que junto con las normativas específicas (horarios, tasas, etc.) estarán a disposición del público.

Las tasas y/o precios públicos aplicables a la utilización de las diferentes instalaciones y servicios que se presten en las instalaciones deportivas reguladas por el presente Reglamento, serán las que anualmente apruebe el Pleno del Ayuntamiento a través de la correspondiente modificación de la ordenanza fiscal.

El Ayuntamiento de Arrasate tiene bajo su competencia las siguientes instalaciones:

1. Polideportivo Musakola.
2. Polideportivo Iturripe.
3. Frontón Uarkape.

El presente Reglamento será igualmente de aplicación a las instalaciones deportivas que



aplikatuko da.

se puedan incorporar en el futuro.

I. TITULUA. ERABILTZAILEAK

1. artikulua. Erabiltzaile izaera.

Erabiltzaile izango dira Musakola, Iturripe eta Uarkapeko kirol instalazioak erabiltzen dituzten edo kirol-jardueraren edo jarduera fisikoren bat praktikatzen duten pertsonak.

2. artikulua. Erabiltzaile motak.

Zazpi erabiltzaile mota bereizten dira:

1. Abonatura.
2. Ikastaroetako eta kirol kanpainetako erabiltzaileak.
3. Librea.
4. Eskola kirola.
5. Kirol taldeak.
6. Erabiltzailearen laguntzailea.
7. Jendea, oro har.

3. artikulua. Abonatura.

a) Abonatu izaera izango du instalazioetara abonatura egonik ordainketa eguneratuta daukan pertsonak.

b) Oro har, abonatuak hainbat motatakoak izan daitezke (familiarak, banakoak, eremu batekoak, plusak, urtekoak, uda garaikoak, etab.), eta bakoitzaren onurak, ezaugarriak eta prestazioak dagokien zerga-ordenantzan arautuko dira.

c) Hatz-marka instalazioetan sarbidea izateko beharrezkoa izango da eta ez-ohiko kasuetan (hatz-marka maila baxua / hatz-marka emateko ukapena) txartela emango da. Txartelak Ordenantza Fiskaletan jasotako kostea izango du, hatz-marka maila baxua dutenentzat izan ezik, lehenengo aldian.

TÍTULO I. DE LAS PERSONAS USUARIAS

Artículo 1. Usuaría y usuario.

Se entiende por usuaria o usuario aquellas personas que utilicen las instalaciones de Musakola, Iturripe y Uarkape o participen en alguna actividad física o deportiva.

Artículo 2. Tipos de usuarias o usuarios.

Se distinguen siete tipos de usuarios:

1. Abonado.
2. Usuarios o usuarias de cursos y campañas deportivas.
3. Libre.
4. Deporte escolar.
5. Clubes deportivos.
6. Ayudante de usuarios o usuarias.
7. Público, en general.

Artículo 3. Abonado.

a) Tiene la condición de abonado aquella persona que esté abonada a las instalaciones y se encuentre al corriente de pago.

b) Con carácter general los abonos podrán ser de diferentes tipologías (familiares, individuales, por zonas, plus, anuales, temporada de verano, etc.) cuyos beneficios, características y prestaciones se regularán en las correspondientes ordenanzas fiscales.

c) El acceso a las instalaciones será a través de la huella biométrica y en casos excepcionales se facilitará un carné (mala calidad de la huella / negación de facilitar su huella). El coste del carné será lo establecido en las ordenanzas fiscales, excepto la primera vez que sólo se facilitará



d) Txartela norbanakoa eta besterenezina da. Identifikatzeko, Nortasun Agiria edo antzeko agiria eskatu ahal izango du kontrol eta zaintzako pertsonalak.

e) Abonuaren prezio publikoa edo tasa, ahal dela, banku-helbideratzearen bidez ordainduko da. Bestela, Arrasateko Udalak horretarako emandako kontu-zenbakian diru-sarrera egin delako egiaztagiria erakutsi beharko da harreran.

f) Abonatu izateari utzi nahi dion pertsonak honako bide hauek erabil ditzake horren berri emateko: Musakolako harreran, web orri bidez, posta arruntez edo sinatutako orria eskaneatuta posta elektronikoz bidaliz. Horretarako azken eguna, abenduaren 31a izango da. Hala egiten ez bada, hurrengo aldian ere abonatu izaten jarraitu nahi duela ulertuko da.

g) Abonu-kuotari dagozkion eta itzultzen diren ordainagiriak, adierazitako modu eta epearen barruan ordaindu beharko dira. Ezarritako epearen barruan ordaintzen ez badira, pertsona horri baja emango zaio berehala, zorretan daukan zenbatekoa ordaindu arte.

4. artikulua. Ikastaroetako eta kirol kanpainetako erabiltzaileak.

Halakotzat joko dira Udalaren Kirol ekintzetan izena emanda duten eta ordainketa eguneratua duten pertsona guztiak.

5. artikulua. Librea.

a) Abonatua, kirol ekintzetako partaide edo kirol taldeetako kide izan gabe, Udalak zehaztutako tasa ordaindu ondoren, instalazioak erabiltzeko eskubidea duen

gratuitamente por baja calidad de la huella.

d) El carné es personal e intransferible. El personal de control y seguridad podrá solicitar el DNI o similar para la identificación.

e) El Precio Público o Tasa del Abono se pagará mediante domiciliación bancaria. Si no, se deberá enseñar en recepción, el certificado del pago de la misma en la cuenta que el Ayuntamiento de Arrasate hubiera facilitado para dicho fin.

f) La persona abonada que desee causar baja de esta condición deberá realizarla en las oficinas de Musakola, en la página web, por correo ordinario o enviando por correo electrónico la hoja firmada y escaneada. Para ello, el último día será el 31 de diciembre. Si no se entenderá que dicha persona quiere seguir con el abono.

g) Los recibos devueltos correspondientes a la cuota de abono deberán ser abonados de la forma y en el plazo que se indique. Si estos no fueran pagados en el plazo establecido, automáticamente se procederá a dar de baja, hasta realizar el pago.

Artículo 4. Usuarios o usuarias de cursos y campañas deportivas.

Se entenderán como tal aquellas personas que se hubieran apuntado a actividades deportivas del Ayuntamiento y se encuentren al corriente de pago.

Artículo 5. Libre.

a) Usuaría o usuario libre es aquella persona que accede a la instalación sin ser usuaria de actividades deportivas o clubs deportivos y



pertsona.

6. artikulua. Eskola kirola.

a) Ikastetxeen gorputz heziketa ikasgai orduak eta eskola orduetatik kanpoko eskola kirolak osatuko du.

b) Eskola orduetan, nagusiki Arrasateko ikastetxeen igeriketa eskolak nahiz gorputz hezkuntzako eskolak hartuko dituzte kiroldegiek. Kasu guztietan, irakasle baten ardurapean etorriko dira taldeak eta hau izango da haien gorputz hezkuntzako eta portaeraren erantzulea.

Urtero, uztailean aurkeztuko dituzte ikastetxeek hurrengo ikasturterako beharko dituzten instalazioak.

c) Eskola-ordutegitik kanpoko eskola-kirolaren aurreko kanpaina amaitu aurretik eskatuko dira urtero, instalazioak erabiltzeko hurrengo urterako beharrak. Entrenamendu eta lehiaketak baimentzeari dagokionez, kirol taldeei ezarritakoa beteko da.

d) Talde bakoitzaren arduradunak, (begiraleak edo entrenatzaileak), kasu guztietan, instalaziorako sarrera-irteera taldearekin batera egingo du; bertara sartu aurretik eta irteteen aldagelak ikuskatuko ditu eta azken ikaslea atera arte itxaron beharko du.

7. artikulua. Kirol taldeak.

a) Lehiaketa kirolaren baliozko ordezkari bakarrak legez eraturako eta lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirol taldeak izango dira.

que tiene derecho a hacer uso de la misma previo pago de la tasa aprobada por el Ayuntamiento.

Artículo 6. Deporte escolar.

a) Lo forman las horas de educación física de los centros educativos y el deporte escolar fuera del horario lectivo.

b) Durante el horario escolar los polideportivos estarán principalmente dedicados a acoger tanto las clases de educación física como de natación escolar de los colegios de Arrasate. En todos los casos, los grupos escolares accederán a las instalaciones acompañados de un profesor responsable de su educación física y de su comportamiento.

Anualmente, los centros docentes presentarán en julio las solicitudes de las instalaciones que necesitarán para la próxima temporada.

c) Las solicitudes de las instalaciones que necesiten para la siguiente temporada del deporte escolar fuera del horario escolar, se presentarán antes de finalizar la campaña anterior. En cuanto a la autorización de entrenamientos y competiciones, se cumplirá lo establecido a los clubs deportivos.

d) El responsable (monitor o entrenador) siempre acompañará a su grupo a la entrada y a la salida; revisará las instalaciones antes de entrar y salir de éstas y deberá esperar hasta que salga el último alumno.

Artículo 7. Los clubes deportivos.

a) Los clubes deportivos legalmente constituidos serán considerados como los únicos representantes válidos del deporte de competición.

b) Para tener consideración de club, éste



- b) Talde izaera izateko, Euskal Herriko Kirol Elkarte eta Federazioen Erroldan eta Udalaren Kirol Taldeen Erroldan inskribaturik egon beharko dute.
- c) Taldeek euren entrenamenduak, lehiaketak eta erakustaldiak burutzeko, udal instalazioak erabiltzeko aukera izango dute.
- d) Abonaturik egon beharko dute instalazioak erabiltzen dituzten taldeetako kirolariek.
- e) Partida, entrenamendu, erakustaldi eta abarretarako, instalazioak lagatzeko eskatu beharko dute taldeek.
- f) Desberdintzen dira:
- **Ohiko entrenamenduak burutzeko eskabidea:** aurreko denboraldia amaitu aurretik egin beharko da. Jasotzen diren eskabide kopuruaren arabera, lagapenak antolatuko dira. Denboraldi baterako izango da baimen horren iraupena.
 - **Denboraldiko ohiko lehiaketak:** ostegunerako asteburuko partiduen inguruko informazioa aurkeztu beharko dute arduradunek.
 - **Maiztasun jakineko ez ohiko entrenamendu edo lehiaketa ofizialeterako eskabideak:** gutxienez ere, hilabete bat lehenagotik egingo dira.
- g) Instalazioak erabiltzeko ordutegiaren banaketa Arrasateko Udalak egingo du klub interesatuen beharrianak entzun ondoren, eta kirol-denboraldi baterako balioa izango dute.
- h) Euren lehiaketa-partidak jokatzeko zelaiak eta pistak eskatzen dituzten klub federatu guztiek derrigor eman beharko diote
- deberá de estar inscrito en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco y en el Registro de Clubes del Ayuntamiento.
- c) Los clubes tendrán la oportunidad de utilizar las instalaciones municipales para celebrar sus entrenamientos, competiciones y exhibiciones.
- d) Los deportistas de los clubes que utilicen las instalaciones del Ayuntamiento deberán de estar abonados a las mismas.
- e) Los clubes deberán solicitar al Ayuntamiento la concesión de las instalaciones para partidos, entrenamientos, exhibiciones, etc.
- f) Se diferencian:
- **La solicitud para entrenamientos ordinarios:** se deberán realizar antes de finalizar la temporada anterior. Según las solicitudes recibidas se llevarán a cabo las cesiones necesarias. La duración de dichas autorizaciones será para una temporada.
 - **Competiciones ordinarias de la temporada:** los responsables entregarán para el jueves la información de los partidos de los fines de semana.
 - **Solicitudes para entrenamientos y competiciones oficiales extraordinarios:** se realizarán, como mínimo, con un mes de antelación.
- g) La distribución de los horarios de uso de las instalaciones se realizará por el Ayuntamiento de Arrasate una vez oídas las necesidades de los clubes interesados y serán válidos durante el desarrollo de una temporada deportiva.
- h) Todos los clubes federados que soliciten campos y pistas para jugar sus partidos de competición deberán entregar, obligatoriamente, una copia de su calendario



Arrasateko Udalari euren lehiaketa-egutegiaren kopia bat.

i) Utzitako instalazioa Arrasateko Udalari jakinarazi gabe hiru egunez erabiltzen ez duten taldeei hura erabiltzeko baimena kenduko zaie (ezinbesteko arrazoiak, eguraldi arazoak, etab. direnean izan ezik).

j) Instalazio eta dependentzien erabilera-baimenak eten ahal izango ditu Udalak haren iritziz lehentasuna duten beste erabilera batzuk emateko, betiere bidezkoak badira, eta horretarako, aldez aurretik jakinarazpena helaraziko die.

k) Taldekoen arropak eta poltsak gordetzeko, esleitu zaizkien aldagelak erabili ahal izango dituzte klubek, kirol-jarduerak dirauen artean.

l) Aldez aurretik erabiltzeko eskaera eta erreserba eginda, bileretarako, hitzaldietarako, eta abarrerako Udalak prestatutako espazioak erabili ahal izango dituzte klubek.

m) Lehiaketa ofizialak egiteko, kirol-erakundeek denboraldiaren egutegia igorri beharko dute idatziz, eta, gutxienez 15 egun lehenago, lehiaketetan egingo diren jarduerak eta ordutegiak adieraziko dira.

n) Entrenamendu eta lehiaketa ofizialetako ordutegiak kirol-instalazioetako ordutegi orokorreari egokitu beharko zaizkie. Instalazio bakoitzerako onartutako egutegian zehaztutakoak.

ñ) Kirol-elkarte eta klubek antolatutako kirol-ekitaldien erantzukizun zibila, entrenamendu-saioak barne, euren izango da. Horretarako, dagokien erantzukizun zibileko poliza kontratatu behar dute, eta denboraldiaren hasieran polizen kopia eman behar diote Arrasateko Udalari.

de competición al Ayuntamiento de Arrasate.

i) A los equipos que no hagan uso de la instalación concedida por tres días, sin previa comunicación al Ayuntamiento de Arrasate, se les anulará la autorización (a excepción de causas de fuerza mayor, inclemencias climatológicas, etc.).

j) El Ayuntamiento podrá suspender las cesiones de uso de instalaciones y dependencias antes señaladas para otros usos que estime prioritarios de manera justificada, previa comunicación a los mismos.

k) Los clubes deberán hacer uso de los correspondientes vestuarios que se les asignen para guardar la ropa y bolsas de los componentes del equipo, durante la práctica deportiva.

l) Los clubes podrán hacer uso de los espacios para reuniones, charlas,... habilitados por el Ayuntamiento, previa solicitud de uso y reserva.

m) Para las competiciones oficiales, los clubes deportivos deberán enviar por escrito el calendario de la temporada y, como mínimo, con una antelación de 15 días, las actividades a desarrollar y los horarios.

n) Los horarios de entrenamientos y competiciones oficiales se ajustarán a los horarios generales de las instalaciones deportivas. Prefijadas en el calendario aprobado para cada instalación.

ñ) La responsabilidad civil de los eventos deportivos organizados por las asociaciones y clubes deportivos, incluidas las sesiones de entrenamiento recaerá sobre los mismos. A este efecto deberán contratar la póliza de responsabilidad civil correspondiente, entregando al Ayuntamiento de Arrasate al principio de la temporada las copias de las



- o) Instalazioetan lehiaketak eta ikuskizunak antolatzen direnean, ekitaldi publikoen erantzukizuna erakunde antolatzaileena izango da. Instalazioak erabiltzean sortutako kalteak edo hausturak erabilera-erreserba egin zuen pertsonak edo erakundeak ordaindu beharko ditu. Lehiaketa ofizialetan, dagokion federazioari eta klubari emango zaie kalteen berri, eta bertako kluba izango da aurkako taldeek sortutako kalteen erantzule subsidiarioa.
- p) Adin txikikoen kasuetan, euren kirol taldeko jarrera ona bermatzeaz arduratu beharko dute entrenatzaileek eta begiraleek, eta haien faltan, guraso edo tutoreek. Horiek izango dira gerta daitezkeen tratu txar, *bulling* edo jazarpen kasuen erantzuleak.
- q) Kirol-ekitaldietara sartzeko sarrera kobratzen duten kirol-erakundeek horren berri eman beharko diote aurretik Arrasateko Udalari. Leihatilak erabili ahal izango dituzte (baleude); bestalde, euren ardurapekoak izango dira bai langile kobratzaileak bai ekitaldia egokiro garatzeko kontrola. Horrelako egoeretan, ardura horren barruan sartuko dira kantxa, harmailak, sarrerak, markagailua eta esparru guztien garbiketa.
- r) Udalak lehendik baimendutako entrenamenduen ordutegia bertan behera utzi edo aldatu ahalko du behar denean, eta horrek ez du indemnizazio eskubiderik emango. Dena den, gutxienez aste bat lehenago emango da horren berri.
- mismas.
- o) La responsabilidad de los actos del público en las instalaciones durante la celebración de competiciones y espectáculos recaerá sobre las entidades organizadoras. Cualquier deterioro o rotura en las instalaciones que se origine su uso, serán por cuenta de la persona o entidad que efectuó la reserva de utilización. En el caso de competiciones oficiales estos daños serán comunicados a la Federación y Club correspondiente, siendo el club local el responsable subsidiario de los desperfectos que originen los equipos contrarios.
- p) Los monitores o entrenadores, y a falta de éstos, los padres o tutores deberán garantizar el buen comportamiento de los menores de edad. Ellos serán los responsables de casos de malos tratos, *bulling* o acoso que se puedan dar.
- q) Las entidades deportivas que cobren entrada para acceder a los encuentros deportivos deberán comunicarlo previamente al Ayuntamiento de Arrasate. Podrán hacer uso de las ventanillas de venta allí donde las hubiere, si bien será de su cuenta el personal para cobrar y realizar el control necesario para el buen funcionamiento del evento. Cuando se den estas circunstancias, en la reserva se incluirán la cancha de juego, graderíos, entradas, marcadores, y la limpieza de las áreas correspondientes.
- r) El Ayuntamiento podrá suspender o cambiar los horarios de los entrenamientos autorizados anteriormente, cuando así lo necesite y esa acción no dará derecho a indemnización alguna. No obstante, se comunicará dicho extremo al menos con una semana de antelación.



8. artikulua. Erabiltzaileen laguntzaileak.

- a) Premia berezien ondorioz, aldageletan eta kirol instalazioetan euren kabuz bakarrik ibiltzeko arazoak dituzten erabiltzaileen laguntzaileak izango dira.
- b) Era berean, laguntzailetzat hartuko dira kirol ekintzetan izen emanda dauden 8 urtetik beherako adingabeekin aldageletara laguntzera sartzen direnak.
- c) Laguntza eskaintzeaz haratago ez dute izango instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko eskubiderik.
- d) Laguntzailea doan sartu ahal izango da, baina agiri egokiak eskatu ahal izango zaizkio, erabiltzailearen eta laguntzailearen arteko laguntza-harremana egiaztatzeko.
- e) Laguntzaileen sartzeko denbora zehaztu eta mugatuko da protokolo eta barne erabakiz.

9. artikulua. Jendea, oro har.

- a) Instalazioetara, kirol ikuskizunetara, entrenamenduetara eta lehiaketetara ikusle doazen pertsonak eta bisitariak izango dira.

II. TITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

10. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

- a) Kirol instalazioen erabilerari dagokionez, **eskubide** hauek izango dituzte erabiltzaileek:
 - Instalazioei, ordutegi, prezio publikoei, kirol-jarduerei eta bertara sartzeko moduari

Artículo 8. Ayudantes de las personas usuarias.

- a) Serán acompañantes de las personas usuarias que tengan problemas para desenvolverse solas por su cuenta debido a las necesidades especiales que precisan dentro de los vestuarios y de las instalaciones deportivas.
- b) Asimismo, se considerarán acompañantes aquellas personas que accedan a los vestuarios con un menor de una edad inferior a 8 años, cuando éste esté apuntado a un curso deportivo.
- c) Aparte de ayudar, no tendrán derecho a uso y disfrute de las instalaciones y servicios.
- d) La persona acompañante tendrá acceso gratuito, pudiéndose exigir la documentación pertinente que pueda demostrar la relación asistencial entre acompañante y persona usuaria.
- e) Se limitará el tiempo de la entrada de las personas ayudantes mediante protocolo o decisión interna.

Artículo 9. Público, en general.

- a) Son aquellos acompañantes y visitantes que asistan a los espectáculos deportivos, entrenamientos y competiciones en las instalaciones.

TÍTULO II. NORMAS GENERALES DE USO DE LAS INSTALACIONES

Artículo 10. Derechos de las usuarias e usuarios.

- a) Respecto al uso de las instalaciones deportivas, las personas usuarias tendrán los siguientes **derechos**:
 - Recibir información sobre las instalaciones, horarios, precios públicos,



buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

- Udal zerbitzuko langileengandik arreta eta trataera egokia jasotzeko eskubidea.
- Edozein unetan, instalazioen zerbitzuetako edozein langile edo arduraduni identifikazioa eskatzeko eskubidea, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak egiteko.
- Alokatu edo gorde zituzten kirol-instalazioak erabiltzeko edo izena emanda zuten jardueretan parte hartzeko eskubidea, gordetako ordutegian eta aldian, betiere hori eragozten duen programatutako beste jarduerarik egiten ari ez badira, Arrasateko Udalak baimendutako kirol-ekitaldirik egiten ari ez badira, edo eguraldia txarraren edo konpondu ezin den matxuraren baten eraginez, ezinezkoa ez bada.
- Kirol-ekintzei dagokienez, izena emana duen jarduera jasotzeko eskubidea; betiere, izena emanda dutenen kopurua gutxienekotik gorakoa bada.
- Instalazioak behar den higie, garbitasun eta segurtasunarekin erabiltzeko eskubidea, gordetako kirol-jarduera behar bezala garatuko dela bermatzeko.
- Erabiltzaileari ez dagozkion arrazoiengatik, ordutegiarekin nahasteren bat badago, hartutako ordua atzeratzea –ordurako ezer programaturik ez badago– edo, libre badago, beste instalazio batera aldatzea aukera dezakete. Abonatuak eta erabiltzaile libreek kontratatutako zerbitzua itzultzea eskatu ahal izango dute, gertaeraren bat jazo edo zerbitzua bertan behera geratu denean (altzarietan edo instalazioetan matxurak). Ez da itzulketarik egingo eguraldiaren edo ezinbesteko arrazoiengatik gertatu denean (greba legala barne).
- Hala behar denean, monitorearen ordezkia edukitzeko eskubidea, salbuespenak salbu.
- Uraren kalitatearen neurketari buruzko actividades deportivas y forma de acceso a las mismas.
- Atención y trato correcto por parte del personal del servicio del Ayuntamiento.
- Podrá solicitar en cualquier momento la identificación de cualquier persona empleada o responsable de los servicios de las instalaciones, a los efectos de realizar las reclamaciones o sugerencias que estime oportuno.
- Hacer uso de las instalaciones deportivas que alquilaron o reservaron, o de las actividades en que tuvieron inscripción, en los horarios y períodos reservados siempre y cuando no se estén desarrollando actividades programadas que lo impidan, no se celebren acontecimientos deportivos autorizados por el Ayuntamiento de Arrasate o sea imposible por inclemencias meteorológicas o avería no subsanable.
- En el caso de actividades pertenecientes a escuelas deportivas, a recibir la clase en la que se inscribió, siempre que el número de inscritos supere el mínimo requerido.
- Utilizar las instalaciones con buen grado de higiene, limpieza y seguridad, que asegure el correcto desarrollo de la actividad deportiva reservada.
- En caso de desajustes horarios por causas ajenas a las personas usuarias, podrán optar por prorrogar su hora si no estuviera programada, o cambiar a otra instalación si estuviera libre. Las personas abonadas y usuarias por libre podrán solicitar la devolución del servicio contratado en caso de incidencia o suspensión del servicio (averías en el mobiliario o en las instalaciones). No se procederá a la devolución por motivos meteorológicos o de fuerza mayor (incluida la huelga legal).
- Suplir las ausencias de los monitores, salvo circunstancias excepcionales.
- Conocer los datos de mediciones de calidad del agua (ph, nivel de cloro y



datuen berri (ph-a, kloro maila eta tenperatura) edukitzeko eskubidea.

- Instalazioen erreserba egiteko eskubidea.
- Edozein erreklamazio, zalantza, kexa edo iradokizun idatziz eta askatasun osoz aurkezteko, eta gehienez hogeita hamar eguneko epean erantzuna jasotzeko eskubidea.
- Indarrean dagoen legeari jarraiki, datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta pribatutasuna bermatuta edukitzeko eskubidea.
- Arreta euskaraz edo gaztelaniaz jasotzeko eskubidea.

11. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

a) Kirol-instalazioen erabiltzaile guztiak honako **betebehar** hauek dituzte:

- Instalazioak eta zerbitzuak araudi honetan zehaztutakoari eta araudia garatzen duten xedapenei (instalazio bakoitzaren araudi espezifikoak, etab.) eta udal zerbitzuko langileen jarraibideei lotuta erabiltzea.
- Instalazioko beste erabiltzaileak, jendea eta langileak errespetuz tratatzea, langileen lana erraztea, instalazioetan zuzen jokatzeko eta kirol-materiala zaintzea; instalazioak garbi eta egoera onean mantentzen lagunduz.
- Nork bere burua identifikatzea, udal zerbitzuko langileren batek eskatzen dionean.
- Jarduera bakoitzari dagozkion kirol-jantziak eta kirol oinetako egokiak erabiltzea (kanpoan erabiltzen dena eta barruan erabiltzen dena bereiziz).
- Instalazioen funtzionamendurako ordutegiak errespetatzea, eta udal zerbitzuko langileei jarraibideei kasu egitea beti.
- Arduragabekeriak edo atzipez edozein kalte eraginez gero, instalazioei edo beste

temperatura), que tienen que estar expuestos al público.

- Derecho a reservar las instalaciones.
- Poder expresar libremente por escrito cualquier reclamación, duda, queja o sugerencia, y a tener contestación en un plazo máximo de treinta días.
- Tener garantizada la confidencialidad y privacidad de los datos personales, según la legislación vigente.
- Derecho a ser atendida en euskara o castellano.

Artículo 11. Deberes de las usuarias e usuarios.

a) Todas las usuarias y usuarios de las instalaciones deportivas tendrán las siguientes **obligaciones**:

- Utilizar las instalaciones y servicios conforme a las normas de este Reglamento y disposiciones que lo desarrollen (normativa específica de cada instalación, etc.) y a las indicaciones que realice el personal del servicio municipal.
- Tratar con respeto al resto de usuarios, público y personal de la instalación, favoreciendo la labor del mismo y comportarse correctamente en las instalaciones ayudando a mantenerlas limpias y en buen estado, y respetar el material deportivo.
- Identificarse, cuando así se lo requiera el personal del servicio municipal.
- Utilizar el atuendo deportivo y calzado adecuado (diferenciando el utilizado fuera de las instalaciones y el del interior) a cada actividad.
- Respetar los horarios de funcionamiento de las instalaciones, atendiendo en cualquier caso a las indicaciones del personal del servicio municipal.
- Abonar la valoración de cualquier desperfecto ocasionado por negligencia



erabiltzaileei eragindako kaltea ordaintzea.

- Helbidea, telefono-zenbakia eta bankuko datuak aldatzean edo erabiltzaile izaera utzi behar denean, horren berri kiroldegian ematea, araudi honetan ezarritako bideak erabiliz.
- Kuotaren ordainketa errespetatzea eta betetzea.
- Instalazioak egoki eta arduraz erabiltzeko betebeharra. Erabiltzaileak instalazioen xederako erabili behar ditu instalazio horiek, beste edozein erabilera egiteko, aurretik udalaren baimena jaso behar da.
- Instalazioetako enplegatuei funtzionamenduaren akats, haustura, bestelako akats edo Araudi honetan xedatutako ez betetzearen berri ematea.
- Beste erabiltzaile batzuen lehentasunezko eskubideak errespetatzea, bereziki, erreserba orduetan.
- Instalazio guzti-guztien betebeharrak komunak betetzea.

12. artikulua. Debekaturik dauden ekintzak.

- a) Instalazioen barruan erretzea eta jatea, horretarako adierazita dauden tokietan izan ezik.
- b) Aldageletatik kanpo jantztea edo erantztea.
- c) Sexu bateko pertsonak beste sexuarentzat gordeta dauden espazioetan sartzea, 8 urtetik beherako umeak izan ezik, nagusi batek lagunduta sar daitezke.
- d) Instalazioetan edari alkoholdunak saltzea edo edatea.
- e) Instalazioetan kristalezko objektuak sartzea.
- f) Pipak, txikleak, gozokiak edo bestelako produktuak jatea.

o dolo por cuenta del responsable o responsables del mismo.

- Comunicar los cambios de domicilio, teléfono y datos bancarios y bajas en la recepción del polideportivo, según lo establecido en este Reglamento.
- Cumplir las obligaciones de pago de la cuota.
- Obligación de uso correcto y responsable de las instalaciones. La usuaria o usuario deberá utilizar estas instalaciones para el fin programado en las instalaciones, y para cualquier otra utilización se necesitará el permiso del Ayuntamiento.
- Informar a las empleadas y empleados de las instalaciones sobre los errores, rupturas, otros fallos o incumplimiento dispuesto en el presente Reglamento.
- Respetar los derechos preferentes de otras personas usuarias, sobre todo, en horarios de reservas.
- Cumplir las obligaciones comunes de todas y cada una de las instalaciones:

Artículo 12. Actividades prohibidas.

- a) Fumar ni comer en el interior de las instalaciones, excepto en las zonas señaladas al efecto.
- b) Vestirse o desvestirse fuera de los vestuarios.
- c) La entrada de personas de un sexo a espacios reservados exclusivamente al otro sexo, exceptuando menores de 8 años, los cuales pueden acceder a vestuarios del sexo contrario, acompañados de un adulto.
- d) Vender o beber bebidas alcohólicas en las instalaciones.
- e) Introducir objetos de cristal en las instalaciones.
- f) Comer pipas, chicles, otras golosinas u otros productos.



g) Patin edo patinetez instalazioetan ibiltzea.

h) Animaliekin sartzea.

g) Andar en patines o patinetes en las instalaciones.

h) Entrar con animales.

III. TITULUA. ABONUAK ORDAINTZEA, INSTALAZIOAK ERRESERBATZEA ETA IKASTAROETAN IZENA EMATEA

13. artikulua. Abonua.

a) **Prezioak kobratzea:** tasak eta prezio publikoak Udalak kobratu eta administratuko ditu.

- Abonua eta ikastaroetako kuotak motaren arabera ordainduko dira, eta abonua indarraldia, ikastaroa edo jarduera hasi baino lehen.
- Ordainketa helbideratze edo transferentzia bidez egingo da.
- Adingabeak diren erabiltzaileen kasuan, prezioak gurasoek edo legezko tutoreek ordaindu beharko dituzte.
- Adingabea erroldatutzat jotzeko, haren gurasoetako batek edo legezko tutoreak ere erroldatuta egon beharko du.
- Jarduerak isilbidezko adostasunez berrituko dira, ikasturte osoan zehar, hilaren 25a baino lehen, Musakola kiroldegiko bulegoetan jakinarazten ez badute, behintzat. Urteko abonua, berriz, abenduaren 31a baino lehen baliogabetzen ez badira, isilbidez berrituko dira. Hileroko abonua isilbidezko adostasunez berrituko dira hilaren 25a baino lehen, Musakola kiroldegiko bulegoetan jakinarazten ez badute, behintzat.
- Lehiaketa federatuak ez direnean, instalazioak erabili nahi dituzten taldeek dagokien prezio publikoa ordaindu beharko dute.

b) **Itzulketei** dagokienez, kobratutako

TÍTULO III. DEL PAGO DE LOS BONOS, RESERVA DE INSTALACIONES DEPORTIVAS E INSCRIPCIONES EN ACTIVIDADES DEPORTIVAS

Artículo 13. Abonos.

a) **Cobro de los precios:** será el Ayuntamiento quien cobre y administre las tasas y precios públicos.

- El pago de los abonos y cuotas de cursos se realizará en función de la tipología del mismo y con carácter previo al inicio del periodo de abono, curso o actividad.
- El pago del Precio Público o Tasa se realizará por domiciliación o transferencia.
- En el caso de usuarios o usuarias menores de edad, los últimos responsables del pago de los precios serán los padres, madres o tutores/as legales.
- Para considerar empadronado/a a un o una menor, deberá tener esta consideración el o la misma y su padre o madre, o quien sea su tutor legal.
- Las actividades se renovarán por acuerdo de silencio, en el caso de que no se informe antes del día 25 en las oficinas del polideportivo de Musakola. Los abonos anuales se renovarán por acuerdo de silencio en el caso de que no se informe antes del 31 de diciembre. Los abonos mensuales se renovarán por acuerdo de silencio, en el caso de que no se informe antes del día 25 en las oficinas del polideportivo de Musakola.
- Cuando no sean competiciones federadas, los grupos que deseen utilizar las instalaciones deberán de pagar el precio público establecido.

b) En cuanto a las **devoluciones**, las cuantías cobradas o los que están sin pagar



zenbatekoak edo ordaintzeko daudenak kasu hauetan itzuliko edo ezeztatuko dira:

- Udalari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik jarduera egiten ez denean. Aitzitik, izena emanda dagoen jardueran parte ez hartzea erabiltzaileak erabaki badu, ez du ordaindutako dirua bueltan jasoko.
- Halaber, Udalak aurretiaz zehaztu ahalko ditu arrazoi objektiboak hainbat kasutan jardueraren dirua berreskuratzeko, betiere, behar bezala arrazoituta.
- Medikuek ziurtatutako osasun-arazoengatik erabiltzaileak –abonatuak izan zein ez– izena emanda duen jardueran parte hartzerik ez badu, abonatuak jarduera hori berreskuratu ahal izango dute, medikuaren alta jaso eta, gehienez, hiru hilabetez.

14. artikulua. Erreserbak.

a) Erreserba egin aurretik, lehentasuna izango dute Udalarekin lagapen hitzarmena sinatuta duten taldeen ordutegi eskaerak.

b) Alokatu daitezkeen instalazioak hauek dira:

- Musakola: kantxa, tenis pistak eta padel pistak.
- Musakolako kanpoko instalazioak:
 - Kantxak, frontoiak, padel eta squash.
 - Futbol eta errugbi zelaiak, eta atletismo pista.
- Iturripe: frontoiak, tenis pista, kanpo zelaiak eta kantxak.
- Uarkape: pilotalekua eta errebotilloak.

c) Bi erreserba mota daude: finkoak eta puntualak. Lehentasuna, lauhileko erreserba finkoa egiten dutenek izango dute.

d) Erreserba finkoetatik libre geratzen diren

se devolverán o anularán en los siguientes casos:

- Cuando la actividad no se realice por causa imputable al Ayuntamiento. Por el contrario, si es la persona usuaria quien decide no asistir a la actividad a la que previamente se ha inscrito, no tendrá derecho al reintegro de lo ya pagado.
- Así mismo el Ayuntamiento podrá determinar con carácter previo, las causas objetivables que pudieran dar lugar a la devolución, siempre debidamente justificado.
- En el caso excepcional de que una persona usuaria, abonada o no, no pueda realizar la actividad a la que se ha inscrito por causa de salud acreditada médicamente, las personas usuarias podrán recuperar la actividad, en un periodo no superior a tres meses tras la recepción del alta médica correspondiente.

Artículo 14. Reservas.

a) Tendrán prioridad frente a las reservas, las solicitudes de horarios de los clubes que hubieran firmado un contrato de cesión con el Ayuntamiento.

b) Las instalaciones que se pueden reservar son las siguientes:

- Musakola: cancha, pistas de tenis y padel.
- Instalaciones exteriores de Musakola:
 - Canchas, frontones, padel y squash.
 - Campos de fútbol y rugby, y la pista de atletismo.
- Iturripe: frontones, pista de tenis, campos exteriores y canchas.
- Uarkape: frontón y rebotillos.

c) Hay dos tipos de reservas: las fijas y las puntuales. Tienen prioridad las que realicen la reserva fija de cuatro meses.

d) Las horas que se queden libres, se utilizarán para gestionar las reservas



orduak erabiltzaileen erreserba puntualak egiteko izango dira.

- e) Erreserbak alde aurretik ordainduko dira.
- f) Erreserba baliogabetu ahal izango da, 24 ordu lehenagotik abisatuz gero, gehienez ere, hiru aldiz lauhilekoan. Laugarrenean, ez da itzulketarik izango.
- g) Instalaziorik ez dela erabiliko aurrez ez abisatzeak, ez du itzulketarik izango. Bigarren aldiaren, erreserba finkoa balego, galtzea ekarriko luke.
- h) Udalak erabakiko du noiz dagoen instalazioa erabiltzaileentzat praktika-ezin edo arriskutsu.

i) Udalak instalazioen erabilera ordutegiak mugatzeko eskubidea du, besteak beste: entrenamenduak, ikastaroak, txapelketak, erreserbak eta lehiaketak.

j) Erabiltzaile talde batek egun berean, 2 orduz, soilik, ahalko ditu instalazioak erreserbatu. Gehiago nahi izanez gero, kirol teknikariak aurrez baimendu beharko du.

15. artikulua. Erreserba finkoak.

a) Erreserba finkoaren eskaera orria entregatu beharko da lauhileko. Prentsa ohar eta informazio kartelen bidez abisatuko da entregatzeko data. Modu honetan, urtea epealdi hauetan zatituko da:

- Urtarrila, otsaila, martxoa eta apirila.
- Maiatza, ekaina, uztaila eta iraila. Abuztua ez.
- Urria, azaroa eta abendua.

Abuztuan, erreserba guztiak baliogabetzen dira.

b) Taldeko ordezkari bakoitzak erreserba finkoaren eskaera orria entregatu beharko du

puntuales.

- e) Las reservas se pagarán previamente.
- f) Se podrá anular la reserva, avisando con 24 horas de antelación, tres veces como máximo en todo el cuatrimestre. A partir de la cuarta vez, no habrá devolución.
